

**BI MILA ETA HAMAHIRUKO URTARRILAREN 14AN ETXARRI ARANAZKO
BATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

ACTA DE LA SESIÓN PLENARIA ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO DE
ETXARRI ARANATZ EL DÍA 14 DE ENERO DE DOS MIL TRECE

2013ko urtarrilaren 14an, 20:00etan, Etxarri Aranazko Udalak Ohiko Osoko Bilkurara deitu, eta lehenengo deian osatu da, arauzko moduan deitu ondotik. JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA alkatea mahaiburu izan du, eta ondoko zinegotziak agertu dira

En Etxarri-Aranatz y casa consistorial, siendo las veinte horas del día 14 de enero de dos mil trece se reúnen los concejales en sesión plenaria ordinaria, tras haber sido convocada la misma en forma legal, bajo la presidencia de la Sra. Alcalde-Presidente: D. Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena, y con la asistencia de los siguientes concejales:

Agertu dira / Asisten:

**ENEKA MAIZ ULAYAR and
IÑIGO LAZKOZ LEKUONA jn.
ARACELI ERDOZIA ANSO and.
EDURNE IGOA LIZARRAGA and
KITZ MENDIOLA BARANDALLARA and.
MARIA ARANTZAZU ARTIEDA IGOA and.
MIGUEL ANGEL GOÑI IXURKO jn.
MAIDER GOÑI ERRAZKIN and
JUAN ANTONIO EXTREMERA APESTEGIA jn.**

Ez dira agertu/ Excusan su asistencia

AITOR KARASATORRE MUGURUZA jn.

Idazkaria /Secretaria

Silvia Gonzalo Etxarri

Alkateak azaldu du, aurreko bileran eskatu zen bezala, gaurko bileran Koldo Azkona, Mankomunitateko itzultzailea, zeregin horretan arituko dela
Akta idazkariak grabatuko du

A continuación el alcalde informa que tal y como se solicitó en la sesión anterior, en la sesión de hoy se encuentra presente un traductor de la Mancomunidad de Sakana, Koldo Azkona, para realizar las traducciones.
La Secretaria grabará la sesión.

1.- AURREKO AKTAK/Actas anteriores

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, 2012ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuren akta aztertu da, eta ondorengo zuzenketak egin ondoren onartu da:

Tras levantar la sesión el Sr. Presidente, se aprueba el acta de la sesión anterior celebrada el día 28 de noviembre de 2012 tras realizar las siguientes correcciones:

-Gaztelera zko bertsioan bilera ohikoa zela jartzen zuen. Ezohikoa izan behar da.

-Kitz Mendiola ren izena bi aldiz agertzen da. Bat ezabatuko da.

-2. puntuan: NABAI taldeak eskatu du aktan agertzeko zergatik erabaki zuten ebazpena akordiorik gabe uzteko: “bilkura honetan proiektua aztertu ondoren, zalantzak daude larreen udal partzelak okupatzen ote diren”

-4. puntuan: **Aldapasoro, kontribuzio bereziak:** akordioak bere horretan jarraituko du, baina jabeei ez zaie jakinaraziko ziur izan arte Nafarroako Gobernuak epe motz batean dirua emago duela. Jakinarazpenak egin baino lehen hiru talde politikoei jakinaraziko zaie.

-En castellano donde dice sesion “ordinaria” debe decir “extraordinaria”

-El nombre de la concejal Kitz Mendiola aparece repetido. Se debe anular una.

-Punto 2º: NABAI solicita que se recoja en acta la razón por la que optaron por dejar el acuerdo pendiente de acuerdo: “ya que tras examinar el proyecto en la presente sesión surgen dudas sobre si se ocupa parte de las parcelas municipales de pastos”

-4º punto: **Contribuciones Especiales Aldapasoro:** Se mantiene el acuerdo, pero las notificaciones a los propietarios no se realizarán hasta que no se tenga la seguridad de que el Gobierno de Navarra vaya a financiar la obra en un plazo relativamente corto. Antes de hacerlo se comunicará a los tres grupos políticos

2.-CERAMICAS UTZUBAR S.A. ENPRESAK SUSTATUTAKO HIRIGINTZAKO PLAN ALDAKETA HASIERA BATEZ ONESTEA / APROBACIÓN INICIAL DE MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PLAN DE URBANISMO PROMOVIDO POR CERAMICAS UTZUBAR, S.A.

Cerámicas Utzubar S.A. enpresak, 2012/08/2an, aldaketa puntual baten espedientea aurkeztu zion Etxarriko Hirigintzako Planari (Antolamendua Egituratzeko Zehaztepenak.). Helburua da urbanizaezina den lur azpikategoria bat aldatzea, hustiapen naturalerako lur babestua izateko (buztin-harrobirako perdoia duen baso-zorua izateko).

Kontuan harturik udal arkitektoak 2012/10/17an aldeko txostena egin duela, eta ikusirik etorkizuna begira partzelaren emakida prozesuan zenbait baldintza kontuan izan beharko direla, aurreko osoko bilkuran sortu ziren zalantzak argituta, Udalbatzak erabaki du:

Lehendabizikoa.-Hasiera batez onestea Etxarri Aranazko Hirigintzako Planaren Aldaketa Puntualaren espedientea (antolamendu egituratzaileko determinazioak), Cerámicas Utzubar, S.A. enpresak sustatua, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 70. artikuluan, 79.2 artikulutik hara igorrita, xedatutakoari jarraituz.

Bigarrena.-Espedientea hilabetez jendaurrean jartzea, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIAlean eta Foru Komunitateko egunkarietan iragarkia ezarrita, eta ale bat igortzea Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura, Nafarroako Gobernuako departamentuen eskumenetako gaiei buruzko txostena egin dezan, Ingurugiroko Departamentuak bereziki, 35/2002 Foru Legearen 70 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Hirugarrena.-Espedienteak sortzen dituen gastu guztiak sustatzaileak ordaindu beharko ditu, adibidez, prentsa, tasak, etab.

Laugarrena.- Interesatuari jakinaraztea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Akordio hau izapide-egintza da eta ondorioz, ezin da errekurritu.

Con fecha 02/08/2012 Ceramicas Utzubar, S.A. S.L. presenta Modificación Puntual del Plan Municipal de Urbanismo de Etxarri Aranatz (Determinaciones de Ordenación Estructurante) para modificar una subcategoría de suelo no urbanizable pasando a ser suelo de preservación para explotación natural (suelo forestal con tolerancia de cantera de arcilla)

A la vista del informe favorable elaborado por el arquitecto municipal el 17/10/2012, y teniendo en cuenta que cara a futuro en la posible concesión de la parcela deberán tenerse en cuenta algunas condiciones indicadas en tal informe, aclaradas las dudas surgidas en la sesión plenaria anterior el Pleno acuerda:

Primero. _Aprobar inicialmente el expediente de Modificación Puntual del Plan Municipal de Urbanismo de Etxarri Aranatz (Determinaciones de Ordenación Estructurante) promovido por Ceramicas utzubar, S.A. de conformidad a lo dispuesto en el artículo 70, por remisión del artículo 79.2 de la Ley Foral 35/2002, de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Segundo. _Someter el expediente a información pública durante un mes, mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Navarra y diarios editados en la Comunidad Foral, remitiéndose un ejemplar del mismo al Departamento de Vivienda y Ordenación del Territorio a fin de que éste emita informe sobre las materias competencia de otros departamentos, en este caso especialmente del Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente el mismo, de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 70 de la Ley Foral 35/2002.

Tercero.-Todos los gastos derivados del expediente se trasladaran al promotor, como por ejemplo prensa, tasa etc.

Cuarto.-Trasladar el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos.

Se trata de un acto de trámite y por lo tanto no recurrible.

3.- 2013KO LAN EGUTEGIA / CALENDARIO LABORAL 2013

Hiru ordezkari sindikalek 2013/01/09an aurkeztutako proposamena azaldu du alkateak. Idazkariari entzun ondoren, Osoko Bilkurak proposamena onartu du.

Etxarri Aranazko Osoko Bilkurak aho batez hartu du erabakia, honako xedapen hauei jarraikiz:

-- 26/2012 FORU LEGEA, abenduaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

--453/2012 EBAZPENA, maiatzaren 30ekoa, Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ordaindu bai baina errekueratu behar ez diren 2013ko jaiegunen egutegi ofiziala ezartzen duena;

-- 624/1999 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako enplegatuentzat urteko lanaldia ezartzen duena, hain zuzen ere, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren aplikazio eremuan sartzen direnentzat;

Hauxe da erabakia:

1. 2012ko jaiegunen lan egutegi hau onestea, Etxarri Aranazko udal bulegoetarako: Urtarrilaren 1a:

Urtarrilaren 7a: Errege Egunaren ondoko astelehena

Martxoaren 28a : Ostegun Santua.

Martxoaren 29a: Ostiral Santua

Apirilaren 1a: Pazko astelehena

Maiatzaren 1a: Langileen Eguna.

Ekainaren 13a: San Kiriko.

Ekainaren 14an: zubia

Uztailaren 25a: Santiago Eguna

Abuztuaren 5, 6 eta 7: Herriko Jaiak.

Abuztuaren 15a: Abutzuko Andre Maria.

Azaroaren 1a: Domu Santu.

Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierkoa.

Abenduaren 6a: Konstituzioaren Eguna.

Abenduaren 25a: Eguberri Eguna.

Orobat, baliogabeak izanen dira, 2013. urtean epeak kontatzeari dagokionez, igande guztiak eta udal bulegoetako jaiegunak.

2.-Etxarri Aranazko Udalaren bulegoetan, eguneko lanaldia 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da, astelehenetik ostiralera, 217 egun, eta zerbitzuen beharren arabera osatu beharko da urteko lanaldiaren lanordu-kopurua, 1.592 ordukoa baita. Eguneko lanorduak honela banatuko dira: 08:00etatik 15:00etara guztiendako derrigorrezkoa, eta gainerako 20 minutuak langile bakoitzak nola bete erabakita, malgutasunez, 07:40etik 08:00etara eta 15:00etatik 15:20era.

3.-Erregistro orokorra 10:00etatik 14:00etara egonen da irekita, jendea hartzeko.

4.-Zerbitzu anitzetako langileen lanaldi orokorra 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da, denentzat, 07:30etik 14:50era. Ekainaren 14an lan egin beharko dute, eta langile bakoitzak hautatutako beste egun bat libre hartu. Garbitzaileen ordutegi orokorra, 07:00etatik 14:20era.

El Sr. Alcalde informa de la propuesta presentada por los tres delegados sindicales. Oída la Secretaria, el Pleno acuerda aprobarla.

De conformidad con la LEY FORAL 26/2012, de 26 de diciembre, por la que se modifica la Ley Foral 13/2012, de medidas urgentes en materia de personal al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra; a la vista d el Decreto Foral 624/1999, de 27 de diciembre, por el que se establece el cómputo anual de la jornada de trabajo para los empleados al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra, sometidos al ámbito de aplicación del Texto Refundido del Estatuto del Personal al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra; a la vista de la RESOLUCIÓN 453/2012, de 30 de mayo, de la Directora General de Trabajo y Prevención de Riesgos, por la que se establece el calendario oficial de fiestas laborales para el año 2013 con carácter retribuido y no recuperable en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra previa negociación con los delegados sindicales, el Pleno del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz ha acordado:

1.-Aprobar el calendario laboral de días festivos durante el año 2013, en las Oficinas del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz, que será el siguiente:

1 de enero: Año nuevo

7 de enero: Lunes siguiente a la Epifanía del Señor

28 de marzo: Jueves Santo.

29 de marzo: Viernes Santo.

1 de abril: Lunes de Pascua.

1 de mayo: Fiesta del Trabajo.

13 de junio: San Kiriko.

14 de junio: Puente fiestas locales

25 de julio: Día de Santiago

5, 6, 7 de agosto: Fiestas Patronales
15 de agosto: Asunción de la Virgen.
1 de noviembre: Festividad de Todos los Santos.
3 de diciembre: San Francisco Javier.
6 de diciembre: Día de la Constitución.
25 de diciembre: Navidad.

Asimismo, se declaran inhábiles a efectos del cómputo de plazos en el año 2013, todos los domingos y los días declarados festivos para las oficinas municipales.

2.-La jornada de trabajo diaria en las Oficinas del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz será de 7 horas y 20 minutos de lunes a viernes, 217 jornadas/días, debiendo en función de las necesidades de los servicios completar hasta el cómputo anual de la jornada, que está establecida en 1.592 horas, siendo de 8 a 15 horas, con carácter general y obligatorio, y quedando los 20 minutos restantes para su cumplimiento a elección del empleado y con carácter flexible entre las 7:40 a 8 horas y las 15 a 15:20 horas.

3.-El horario de atención al público y de apertura del Registro General queda establecido de 10:00 a 14:00 horas.

4.-Los servicios múltiples realizarán su jornada de trabajo con carácter general de 7 horas y 20 minutos, entre las 7:30 y las 14:50 con carácter general. El 14 de junio será día laborable para ellos y se compensará por otro día a elección del trabajador. El servicio de limpieza realizará su jornada de trabajo con carácter general entre las 7:00 y las 14:20.

4.-2013KO HAUTETSIEN ORDAINSARIAK / Retribuciones a cargos electos 2013

Ikusirik 20/2012 FORU LEGEA, abenduaren 26koa, Toki Ogasunek transferentzia arruntan bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen, 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako; Idazkariak informatzen du legeko 15. artikuluko g paragrafoan arautzen direla konpentsazioak deuseztatu edo eten eginen diren kasuak. Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 75. artikuluan eta Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 13. artikuluan agindutakoan oinarriturik, Udaleko kontu hartzailea kontsultaturik, Udalaren ezaugarri bereziei erreparatu ondotik, 2013ko urtarrilaren 14an egindako Osoko Bilkuran, aho batez erabaki da:

Lehena.-Alkateak dedikazio osoa izatea onestea.

Bigarrena.-Alkateak lanaldi osoa izanen du, hau da, 35,40 ordu astean. Bestalde, 29.374,24 euroko soldata gordina jasoko du urtean, hamabi hilabetetan banatua, eta aparteko bi paga, 2.098,16 euro gordinekoa bakoitza. Zenbateko horiei legeak agindutako atxikipenak aplikatuko zaizkie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Gizarte Segurantzako langile kuota kontuan izanik. Era berean, Udalak bere gain hartuko du enpresa kuota ordaintzea.

Alkatearen ordainsariak urtero eguneratuko dira KPIren igoeraren arabera, organo eskudunak bestelako igoerarik ezartzen ez badu.

Hirugarrena.-Gizarte Segurantzaren Diruzaintzako Lurralde Bulegoan eskatzea Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean sartzeko edo alta emateko, legediak agindutako moduan.

Laugarrena.-Alkatearen liberatzeari buruzko erabaki honek 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hartuko du indarra.

Bosgarrena.- Dedikaziorik ez duten gainerako hautetsiek zenbateko hauek jasoko dituzte organo kolegiatuetara joateagatik,.

-Organo kolegiatuetan agertzea: 95 euro (laurogeita hamabost euro) organo kolegiatuetako bilkura bakoitzean agertzeagatik, urtean 1.459,36 euro, gehienez ere.

Zenbateko horiei legeak agindutako atxikipenak aplikatuko zaizkie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela eta.

Hurrengo urteetan, zenbateko hauek eguneratuko dira, Toki Administrazioako zuzendari nagusiak onesten duen urteroko ebazpenean xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.-Udalbatzako kideek kalte ordainak jasotzeko eskubidea dute karguan ari direla izandako gastuen ordain, betiere gastu horiek behar bezala baimendu badira eta agirien bidez justifikatzen badira. Baldintzak eta zenbatekoak, berriz, Nafarroako Administrazio Publikoetako langileentzat urtero ordainsarien alorrean ezartzen direnak izanen dira.

Zazpigarrena.-Zinegotzien ordainsariei buruzko erabaki honek 2013ko urtarrilaren 1etik aitzina hartuko du indarra.

Zortzigarrena.-Erabaki honen berri ematea Udalaren Kontu-hartzailetzari eta Toki Administrazioako Departamentuari.

Bederatzigarrena.-Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki ohoan argitaratzea.

A la vista de lo establecido en la Ley Foral 20/2012, de 26 de diciembre, por la que se establecen la cuantía y la fórmula de reparto del Fondo de Participación de las Haciendas Locales en los Tributos de Navarra por Transferencias Corrientes para los ejercicios presupuestarios de 2013 y 2014; advertidos por la secretaria de las anulaciones por incumplimientos regulados en la letra g del artículo 15 de la citada ley foral; con base a lo preceptuado en el artículo 75 de la LBRL y artículo 13 de ROF; estudiadas las especiales características del Ayuntamiento, consultado el interventor municipal, en sesión Plenaria celebrada con fecha 14 de enero de 2013, se acuerda por unanimidad:

Primero.-Aprobar la dedicación exclusiva del Alcalde.

Segundo.-El Alcalde tendrá jornada completa, es decir, 35,40 horas semanales, con una cuantía a percibir de 29.374,24 euros de sueldo bruto anual. Se dividirá en doce mensualidades más dos pagas extras, por importe de 2.098,16 euros brutos cada una de ellas. A estas cantidades se aplicarán las retenciones que legalmente correspondan en concepto de Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y cuota obrera de la Seguridad Social, asumiendo el Ayuntamiento el pago de la cuota empresarial. Si por el Órgano competente no se aprobase otra subida, la retribución del Alcalde se actualizará anualmente con la subida del IPC.

Tercero.-Solicitar ante la Oficina Territorial de la Tesorería de la Seguridad Social la afiliación y/o alta en el Régimen correspondiente de la Seguridad Social, del Alcalde en la forma que legalmente corresponda.

Cuarto.-El presente acuerdo de dedicación exclusiva del Alcalde, entrará en vigor a partir del 1 de enero del 2013.

Quinto.-Determinar que los miembros de la Corporación que no tienen asignada dedicación alguna, percibirán las siguientes cantidades por asistencia a órganos colegiados:

-Asistencia a órganos colegiados: 95 euros (noventa y cinco euros) por cada asistencia a un órgano colegiado. Límite máximo anual a cobrar por cada concejal: 1.459,36 euros.

A dichas cantidades se les aplicarán las retenciones que procedan en concepto del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de conformidad con la legislación vigente.

Estas cantidades serán actualizadas para los años sucesivos a tenor de lo dispuesto en la Resolución anual que se apruebe por el Director General Administración Local.

Sexto.-Determinar que todos los miembros de la Corporación tendrán derecho a percibir indemnizaciones por los gastos efectivos ocasionados en el ejercicio de su cargo, siempre que sean debidamente autorizados y justificados documentalmente, en los términos y cuantías, que para cada año se establezca en materia retributiva, para el personal al servicio de la Administraciones Públicas de Navarra.

Séptimo.-Este acuerdo sobre remuneración a concejales entrará en vigor, a partir del 1 de enero de 2013.

Octavo.-Dar traslado del presente acuerdo a la Intervención Municipal y a Administración Local.

Noveno.-Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios de ayuntamiento.

5.- UDAL LIBURUTEGIAREN FUNTZIONAMENDU ARAUAK **ONARTZEA/ Aprobación de las normas de funcionamiento de la biblioteca municipal.**

Alkateak hasiera eman ondoren, Eneka Maiz zinegotziak azaldu du Udalak eta herritar batzuek liburutegia bultzatzeko talde bat sortu dutela: irakurketa kanpaina, blog-a sortzea, etab. Ekintza horien artean liburutegiaren funtzionamendurako arauak ezartzea proposatu dute. Horretarako, 1998ko Udal Araua eta Nafarroako Gobernukoa hartu dira oinarri. Batzordearen funtzionamendua ondoren arautuko da.

Osoko Bilkurak aho batez eta hasiera batez onetsi zuen Liburutegiaren funtzionamendu egokirako Ordenantza.

Ordenantza hori jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Jendurreko epean alegaziorik aurkezten ez bada, ordenantza behin betikoz onetsita geldituko da, eta testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara.

TESTUA:

ETXARRI ARANAZKO LIBURUTEGIAREN FUNTZIONAMENDU EGOKIRAKO ARAUDIA

HELBURUA

Etxarri Aranazko liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzaile guztiok aprobetxatzea eta gozatzea; halaber, herritarren eskura jarritako leku, ekipamendu eta materialen erabilera egokia zaintzea.

MATERIALEN ERABILPENA ETA MAILEGUA

Liburutegiko materiala erabili eta maileguz emateko, Nafarroako Liburutegien Sareak ezartzen dituen arau eta prozedurak bete beharko dira:

- 1- Liburutegian horretarako jarritako materiala erabiliko da.
- 2- Kanpora ateratzeko jarri den materiala soilik mailegatu ahalko da, gehienez ere 21 egunez, eta mailegu hori beste bialdi berdineterako berritu ahalko da. Mailegua Internet bidez, telefono bidez edo liburutegian bertan egin ahalko da, erabiltzailearen txartela erakutsita. Ezin izanen dira berritu erreserbatuta dauden materialen maileguak.

ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

- 3- Erabiltzaile txartela aurkeztu.
- 4- Eskatutako materialak zaindu eta ezarritako epean itzuli.
- 5- Eskatutako materiala galdu edo hondatuz gero, erabiltzaileak, liburutegiko arduradunari jakinarazi ondoren, berri bat jarri beharko du.

ERABILTZAILEEN JOKABIDEA

- 6- Erabiltzaileek honela jokatu beharko dute:
 - Isilik egon.
 - Ez jan eta ez edan.
 - Ez erre.
 - Sakelako telefonoak itzalita eduki.
 - Liburutegiko arduraduna eta beste erabiltzaileak errespetatu.
 - Erabiltzaileentzat jarritako lekuak eta materialak behar bezala erabili.
 - Altxariak lekuz ez aldatu (mahaiak, aulkiak...).
 - Sei urtetik beherako haurrek heldu batekin egon beharko dute beti.

HAURTXOKOA

- 7- Liburutegiko arau orokorrez gainera, Haurtxokoko erabiltzaileek honako arau hauei ere jarraituko diete:
 - Haurtxokoa irakurtzeko eta margotzeko gunea da. Ez da haurtzaindegia, ludoteka edo arratsaldea pasatzeko tokia. Ezin da jolasean ibili aulkiekin, liburuekin edo DVD-ekin.
 - Ezin da liburutegian korrika, garrasika edo patinekin sartu.
 - Ezin da barruan jan edo edan.
 - 6 urte beherako haurrek heldu batekin egon behar dute beti.
 - Liburutegiko materialak denonak dira, eta ongi zaindu behar dira denok erabili ahal izateko. Material horiek denonak dira eta ezin dira margotu, moztu, hautsi edo bota. Eta hautsiz gero, haurren arduradunek beste bat ekarri beharko dute. Liburutegiko erabiltzaileak behar bezala errespetatu behar direnez, haurrak heldu batekin joan beharko dira komunera, ahalik eta isilen ibiltzeko.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

- 8- Arauak hautsiz gero, honako neurri hauek hartu ahalko dira:
 - Ahozko edo idatzizko ohartarazpenak adingabeen tutoreei.
 - Liburutegian sartzea aldi batera galaraztea.
 - Materialen bat hondatu edo hautsiz gero, beste bat jarri beharko da.

Zigorrak Etxarri Aranazko Udalak ezarriko ditu Liburutegiko Batzordearen txostena aztertu ondoren.

9- Liburutegia behar bezala erabiltzeko ardura bertako arduradunari eta Etxarri Aranazko Udalari dagokie, eta hauek Etxarri Aranazko Liburutegiko Batzordearen laguntza izanen dute.

10- Liburutegiko arduradunak eskumena du ahozko ohartarazpenak egiteko, baita liburutegiko erabiltzaileak kaleratzeko ere, ahozko ohartarazpenei kasu egin ezean. Hau dena, arau-hausleari jarraian jartzen ahal zaion zigorraz aparte.

Tras la exposición del Sr. Alcalde, la concejal Eneka Maiz explica que entre el Ayuntamiento y un grupo de vecinos se ha creado un grupo para potenciar la biblioteca municipal: campaña de lectura, creación de un blog etc. Y entre ello se ha propuesto la regulación del funcionamiento de la misma. Para ello se ha tomado como base la normativa municipal de 1998 y la del Gobierno de Navarra. La regulación de la Comisión que se crea se regulará próximamente.

El Pleno por unanimidad de los presentes aprobó inicialmente la Ordenanza Municipal reguladora del Buen funcionamiento de la Biblioteca.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 325.1 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, la Ordenanza aprobada se somete a información pública durante treinta días hábiles, a contar desde el siguiente al de publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, para que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones.

Si transcurrido el período de exposición pública no se formularan alegaciones, la Ordenanza quedará definitivamente aprobada, procediéndose a la publicación de su texto íntegro en el Boletín Oficial de Navarra.

REGLAMENTO PARA EL BUEN FUNCIONAMIENTO DE LA BIBLIOTECA MUNICIPAL DE ETXARRI ARANATZ

HELBURUA

Que todos los usuarios podamos aprovechar y disfrutar de los servicios que se prestan en la Biblioteca Municipal de Etxarri Aranatz; así como, procurar el buen funcionamiento y la correcta utilización de los materiales, equipos y espacios a disposición del público.

USO Y PRÉSTAMO DE LOS MATERIALES

Para utilizar y tomar en préstamo el material de la Biblioteca, será necesario cumplir las normas y procedimientos que establece la Red de Bibliotecas de Navarra:

- 1- En la biblioteca se utilizará el material dispuesto para ello.
2. El préstamo externo de libros sólo se realizará con el material dispuesto para ello, y por un período máximo de 21 días, que podrá ser renovado por dos períodos iguales, tanto a través de Internet, por teléfono o acudiendo a la biblioteca y presentando el carné de usuario. No se podrá renovar el préstamo de los volúmenes que se encuentren reservados.

DE LAS OBLIGACIONES DE LOS USUARIOS

- 3- Presentar su carnet.
- 4- Cuidar los materiales solicitados y devolverlos en el plazo establecido.
- 5- En caso de pérdida o deterioro del material solicitado, el solicitante deberá notificarlo al responsable de la biblioteca y reponerlo.

DE LA CONDUCTA DE LOS USUARIOS

- 6- Los usuarios deberán seguir las siguientes pautas de conducta:
 - Mantener silencio,

- No ingerir alimentos ni bebidas,
- No fumar,
- Mantener apagados los teléfonos móviles.
- Mantener una conducta respetuosa hacia el responsable de biblioteca y demás usuarios.
- Utilizar adecuadamente los espacios y materiales dispuestos para los usuarios.
- No cambiar el mobiliario de sitio (sillas, mesas...).
- Los menores de seis años permanecerán siempre acompañados por un adulto.

HAURTXOKOA

7- Además de las normas generales de la biblioteca, los usuarios de la Sala infantil deberán seguir las siguientes pautas:

- La sala infantil de la biblioteca es un espacio reservado a la lectura y a la pintura. No es ni una guardería, ni una ludoteca, ni un sitio para pasar la tarde. No se permite ningún juego con las sillas, los libros o los DVD.
- No hay que entrar a la biblioteca corriendo, ni gritando, ni con patines.
- No se permite comer y beber en el interior.
- Los menores de 6 años siempre permanecerán acompañados de un adulto.
- Los materiales de la biblioteca son de todos y hay que cuidarlos para que los podamos utilizar. No hay que pintar, ni cortar, ni romper, ni tirar los materiales que son de todos, y en caso de deterioro los responsables de los niños tendrán que reponer el material.
- Por respeto al resto de los usuarios de la biblioteca, los adultos acompañaran a los niños al baño, procurando ser lo mas silenciosos posible.

DE LAS INFRACCIONES Y SANCIONES

8- En caso de infracción, se tomarán las siguientes medidas:

- Amonestación oral, o escrita a los tutores de los usuarios menores.
- Suspensión temporal de acceso a la biblioteca.
- Reposición del material estropeado o roto.

Las sanciones serán impuestas por el Ayuntamiento de Etxarri Aranatz previo informe de la Comisión de la Biblioteca.

9- La vigilancia del buen uso de la biblioteca quedará a cargo del responsable de la misma, así como el Ayuntamiento de Etxarri Aranatz, quienes podrá ser auxiliados por la Comisión de Biblioteca del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz.

10- El responsable de la biblioteca esta facultado para amonestar verbalmente o incluso expulsar de la misma a los usuarios, cuando éstos hagan caso omiso de las amonestaciones verbales, al margen de la posterior sanción que se pueda imponer al infractor.

6.-GALDE-ESKEAK / RUEGOS Y PREGUNTAS

Alkateak galde-eskeak dauden galdetu ondoren Juan Antonio Extremerak bi dauzkala esan du:

El Sr. Alcalde abre el turno de ruegos y preguntas y el Sr. Extremera comunica que tiene dos preguntas

-Atez ate: Aurreko Osoko Bilkuran mozioak tratatu ez direnez eta udal beste bi talde akordio batera ailegatu direnez, bere iritzia eman nahi du, aktan agertzeko eta, ahal bada, udal buletinaren argitaratzeko.

-Puerta a puerta: Al no haberse tratado las mociones en la sesión anterior por haber llegado a un acuerdo los otros dos grupos municipales, él quiere dar su opinión al respecto a fin de que conste en acta y si fuera posible, su publicación en el boletín municipal.

Testua:

“RECHAZO AL SISTEMA DE RECOGIDAS DE BASURAS PUERTA A PUERTA:El Partido Popular de Echarri Aranz/ Etxarri Aranzatx rechaza el sistema puerta a puerta porque creemos que es **un gran paso atrás, un gran gasto** (y en estos momentos no estamos para grandes gastos) y una medida que **recortará la libertad de los vecinos**, cuyo derecho a la intimidad se verá violado. Gracias al código que identificará los cubos de basura, los empleados encargados de vigilar si se recicla o no podrán conocer cada detalle de su vida: el periódico que leen, qué comen, los productos de higiene personal que usan... Esto preocupa a los vecinos y así me lo han comunicado.

Por otra parte, consideramos que este sistema **no es higiénico**. Los vecinos tendrán que dejar la basura varios días en sus casas y, cuando la bajen, ésta se colocará en decenas de pequeños cubos de basura, algo que conferirá al pueblo una apariencia sucia y antiestética.

Nosotros creemos que tanto las Mancomunidades como los Ayuntamientos deben **facilitar la vida a los ciudadanos** y no complicársela con servicios de recogida como éste. **En Guipúzcoa**, hay multitudinarias quejas a este respecto y no acabamos de entender por qué razón Bildu se empeña en reproducir este sistema, que tan malos resultados parece estar dando, en Navarra. Desde nuestro punto de vista, implantar este sistema con lo que se está viendo es una grave irresponsabilidad.

Que quede claro que **el Partido Popular está a favor del reciclaje**, pero queremos un sistema que sea más económico y mucho menos molesto que éste.

Respecto al proceso que se está siguiendo, el Partido Popular de Echarri Aranz/ Etxarri Aranzatx **rechaza la consulta** que se ha pactado entre BILDU Y NABAI, pues será muy costosa, algo que no se ha notificado debidamente a los vecinos, por lo que pedimos al Ayuntamiento que lo haga antes de desembolsar tanto dinero: ¿Cuánto vale? ¿Quién va a pagarlo?

Por último, no queda más que añadir que nosotros estamos convencidos de que a Bildu poco le importa cuál sea el resultado. La consulta ciudadana no es más que un paripé, y si les sale mal, dudamos mucho que la Mancomunidad de la Sakana lo respete.”

Eneka Maiz zinegotziak testuko hainbat datu taldeak daukan txostenetan oinarrিতuta okerrak direla esan du. Proposamen zehatza, Europako legea betetzeko duen beste alternatiba bat eskatu dio.

Juan Antonio Extremerak bere alternatiba 5. edukiontzia dela esan du.

Eneka Maizek erantzun du beste leku batzuetan 5. edukiontzia gaika sailkatzea %30 bermatzen duela, eta, gaur egun, Sakanan %25 lortzen dela.

Extremerak datuak ekarriko dituela esan du.

Alkateak NABAIrekin hitzartu den akordioari atxikitzen eta parte-hartze prozesuan parte hartzen gonbidatu du.

Extremera Jaunak hitzarmenean ez duela parte hartuko esan du.

La Concejala Eneka Maiz comenta que varios datos del texto son incorrectos según informes que obran en su poder. Pregunta si tiene una propuesta concreta sobre otra alternativa para cumplir la normativa europea.

Juan Antonio Extremera contesta que su propuesta es el quinto contenedor.

Eneka Maiz replica que el quinto contenedor en otros lugares sólo ha garantizado el reciclaje del 30% y a día de hoy en Sakana se recicla el 25%.

El Sr. Extremera añade que traerá datos sobre ello.

El Sr. Alcalde le invita a adherirse al acuerdo existente con NABAI y tomar parte en el proceso participativo que está en marcha. El Sr. Extremera comunica que no tomará parte en el acuerdo.

-Pintadak:

Extremera jaunak esan du Gobernuaren Ordezaritzak hilabete bateko epea eman zuela pintadak kentzeko, eta, udalak egin ez duenez, Nafarroako Gobernuak egin duela. Era berean, Kostea udalari pasako diote, eta kostea altua gainera. Udalak bere baliabideekin egin beharko du hori guztia.

Alkateak informazio okerra duela esan du. Udalean aspalditik plangintza bat dago eraikuntza publikoak garbitzeko. Jaso zen errekerimenduan pintadak bi lekutatik kendu behar ziren: udaletxekoa plangintzan sartuta zegoen, eta kendu zen. Artola kaleko pintada eraikuntza pribatu batean dagoenez, eta abokatuaren aholkua jarraituz, gutuna bidali zen.

Nafarroako Gobernuak aurreko astean egin zuena, gauean paretak margotu, ez zutela espero esan du: inolako baimenik gabe paretak batzuk margotu zituzten: pribatua eta publiko batzuk (errekerimenduan ez zeudenak eta beste lelo eta pintada batzuk ezabatu zituzten: Euskaraz bizi, Eraso sexistarik ez, etab...)

Extremera jaunak esan du askoz politagoa dela pintadatik gabeko herria eta bailara. Alkateak esan du horrekin ados dagoela eta horri lotuta daudela zaborrak, Portlandeko lantegia, etab...

-BUREIÑA: Miguel Angel Goñik Bureinako bidearen espedientea nola dagoen jakin nahi izan du. Idazkariak eta alkateak informatu dute beheko bi jabe ez dutela nahi izan neurketa topografikoa sinatu. Bidearen goiko jabeak ados zeudenez, 2012ko katastroko mantenimenduan bidearen iparraldeko muga grabatu da.

KONZENTRAZIO PARTZELARIA: Miguel Angel Goñik proposatu du Udalak Nafarroako Gobernuari konzentrazio partzelariaren planoak eskatzeko. Proposamena onartu da.

Eta beste gairik ez zegoenez, 21:00etan presidenteak, Osoko Bilkura amaitutzat emanik, idazkariarekin batera akta sinatu du, eta idazkariak horren fede eman du.

Siendo las 21:00horas, no habiendo más asuntos o temas que tratar, se levanta la sesión por parte del Alcalde Presidente, firmando el acta conmigo el Secretario que certifico